

Bilboko Udal Liburutegiak kalera irtengo dira uztailean eta abuztuan

BILBO, 24 (EUROPA PRESS) Bilboko Udal Liburutegien Sareak 'Udako Liburutegiak' programaren bederatzigarren edizioa jarriko du martxan uztailaren 1ean Txurdinagako eta Fangoko igerilekuetan. Programa Areatzako eta Zorrotzako parkeetara ere helduko da uztailaren 5ean. Joan den udan 14.000 pertsonak hartu zuten parte ekimenean. Bertan, liburuak eta aldizkariak jarriko dira guztien esku, eta irakurketa sustatzeko jarduerak burutuko dira, umeei zuzenduta. Seguir leyendo el artículo Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailaren ekimenaren helburu nagusia herritarrek liburuekin eta irakurketarekin bat egiteko dituzten aukerak zabaltzea da. Horrela, ohiko zerbitzuez gain (kontsulta, liburuen mailegua, CD-ak, DVD-ak, hemeroteka, internet eta abar), Bilboko Udal Liburutegiak kalera irtengo dira udan, Areatzako eta Zorrotzako parkeetan Gazteria eta Kirol Sailak bultzatzen duen Jolastu Parkean programaz gozatzen ari diren eta Fangoko eta Txurdinagako igerilekuetan dauden guztiengana irakurketa hurbiltzeko.

Programa horren bitartez irakurketa zerbitzua eskainiko da, eta horretarako liburuak -eleberriak, haur eta gazte literatura, auto-laguntzako liburuak-, eguneroko prentsa eta aldizkariak jarriko dira guztien esku. Horrez gain, parke eta igerileku horietan liburuen mailegu zerbitzua ere erabili ahal izango da.

Irakurleek etxera eraman ahal izango dituzte interesatzen zaizkien liburuak, aisia gunean bertan ezarriko den epearen barruan itzultzeko baldintzarekin. Udal Liburutegien Sareko karnetik ez duten pertsonak bertan eskatu ahal izango dute. Ohikoa denez, jarduera horien barruan irakurketa bultzatzeko tailerrak ere burutuko dira, umeei zuzenduta.